

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Klusterren zeregina enpresen lehiakortasunean hizpide Garapen Ekonomikorako Ostiraletan

Nafarroako bost elkarteetako arduradunek eta berrikuntza sustatzeko adituek parte hartuko dute

Astelehena, 2019.eko martxoak 25

Berrikuntza zentro eta enpresako elkarte sektorialak, edo klusterrak eta horien zeregina enpresaren lehiakortasunean eta berrikuntzaren hobekuntzan izango da [Garapen Ekonomikorako Ostiraletako](#) gaia. Bertan Nafarroan dauden bost klusterretako kudeatzaile eta elkarte horietako eta enpresa sistemak sustatzen aditu direnek parte hartuko dute.

Jardunaldia, ostiral honetan 12etan hasiko da Kondestable jauregian eta bertan gaian interesa duen edonork parte har dezake, [izena eman ostean](#).

Ekitaldiaren irekieraren ostean, B+I Strategy kontsultorako bazkide zuzendaria den, Sabin Azuak “¿Son los clústeres un instrumento válido hoy en día para favorecer la competitividad empresarial?” hitzaldia eskainiko du. Ondoren, Clústeres en Acción garapenerako zuzendari, Joan Martík, klusterren gobernantza sisteman batzarrek duten papera hartuko du hizpide.

Mahai-inguruan gainera Nafarroako bost klusterrak gidatzen dituzten kudeatzaileek parte hartuko dute: Javier Belarra ACANeko koordinatzailea (automozioa); Arturo Cisneros, CLAVNAko koordinatzailea (ikus-entzunezkoak); Mar González, Impresión Funcional Klusterreko kudeatzailea; Manuel Rodríguez, Enerclusterreko kudeatzailea (eolikoa) eta Sandra Aguirre, Nagrifoodeko kudeatzailea (nekazaritza industria). Berrikuntzaren hobekuntzan klusterrek duten zeregina, proiektuak eta praktika onak izango dituzte eztabaidagai.